






DEBABARRENA BERRITZEN:

Eskualdeko berrikuntza sozialean eraginez
Ebaluazioaren ondorioak



Ebaluazioaren ondorioak

	SUSTATZAILEAK	ERAGINDAKOAK	GIZARTEA	BATEZBESTEKOA
Sormena eta dinamismoa	Garapen-maila ertaina	Garapen-maila ertaina	Ez dagokio	Garapen-maila ertaina
Elkarlan irekia	Garapen-maila ertaina	Garapen-maila ertaina	Ez dagokio	Garapen-maila ertaina
Gobernantza demokratikoa	Garapen-maila altua	Garapen-maila ertaina	Garapen-maila altua	Garapen-maila altua
Euskararen sustapena	Garapen-maila baxua	Garapen-maila baxua	Garapen-maila baxua	Garapen-maila baxua
Emakume eta gizonen berdintasuna	Garapen-maila baxua	Garapen-maila baxua	Garapen-maila baxua	Garapen-maila baxua
Garapen lokala eta jasangarritasuna	Garapen-maila ertaina	Garapen-maila ertaina	Garapen-maila baxua	Garapen-maila ertaina
Bideragarritasuna	Garapen-maila ertaina	Garapen-maila ertaina	Ez dagokio	Garapen-maila ertaina
Ezagutzaren zabalkundea eta transferentzia	Garapen-maila ertaina	Garapen-maila ertaina	Garapen-maila baxua	Garapen-maila ertaina
BATEZBESTEKOA	Garapen-maila ertaina	Garapen-maila ertaina	Garapen-maila baxua	Garapen-maila ertaina

-  Ez dagokio
-  Garapenik gabe
-  Garapen-maila baxua
-  Garapen-maila ertaina
-  Garapen-maila altua
-  Erabateko garapen-maila



Ebaluazioen ondorioak

SORMENA ETA DINAMISMOA ■ GARAPEN-MAILA: ERTAINA

- ✓ Egitasmoek behar soziala ondo identifikatuta dute, eta erantzun berri bat eman nahi diote identifikatutako problematikari. Sustatzaileek inguruaren ezagutza sakona dute, eta bertan dauden behar edo hutsune sozialei erantzuteko bokazioa dute. Oro har, gizartearen eraldaketa sustatu nahi dute, pertzepzio, jarrera eta egiteko moduetan eragin nahi dute.
- ✓ Egitasmoek sortu diren beharretara egokitzeko gaitasuna eta malgutasuna erakutsi dute.
- ✓ Denbora eta espazioa eskaini zaio ideia berriak sortzeari, horretarako berriazko guneak sortuz: topaketak, bilerak, foroak... Ordea, gune horiek ez dira formalak eta antolatuak izan kasu guztietan, eta sustatzaile eta eragindakoek ez dute modu berean parte hartzen, desorekak ematen dira.

Hobetzekoak: denbora eta espazio horiek planifikatzea eta eragindakoak ere ideia berrien sorkuntzan inplikatzeko.





Ebaluazioen ondorioak

ELKARLAN IREKIA



GARAPEN-MAILA: ERTAINA

- ✓ Eragile desberdinen arteko harremanari bereziki eman zaio garrantzia, eta bereziki landu eta zaindu den alderdia da. Sare ikuspegiarekin lan egin da, eta hori elikatzeko, eta ideiak / beharrak jasotzeko kanalak garatu dira.





Ebaluazioen ondorioak

ELKARLAN IREKIA



GARAPEN-MAILA: ERTAINA

- ✓ Oro har, talde homogeneotara jotzeko joera nagusitzen da eta eragindakoen kolektiboa anitzagoa izan da sustatzaileena baino. Aniztasuna presente egon da, batez ere, sexua eta jakintza-arloei dagokionez, eta gutxiago, adina eta jatorriaren alderdiak (proiektu batzuetan bai, besteetan ez). Egoera gutxiagotuan daudenak presente daude proiektuetan (adinekoak, haurrak, emakumeak, beste jatorri batekoak...).

Hobetzekoak: taldeak osatzerakoan eta eragindakoak hautatzerakoan aniztasuna bermatzeko irizpideak zehaztea proiektuetan eta gutxiagotuta dauden kolektiboen partaidetza bermatzeko bideak lantzea. Sustatzailea, kasu gehienetan, erakunde bakarra da, eta proiektua erakunde bakar batek bultzatu beharrian gehiagoren artean egitea komeni litzateke.

- ✓ Arlo pribatu eta publikoaren arteko lankidetzak sustatzen da proiektu gehienetan.

Hobetzekoak: proiektuak definitzerakoan eragile sozialak txertatzea.





Ebaluazioen ondorioak

ELKARLAN IREKIA



GARAPEN-MAILA: ERTAINA

- ✓ Egitasmoek eskualdeko eragileen arteko elkarlana sustatzea dute helburu, baina askotan ez da lortzen eskualde ikuspegia behar bezala lantzea, eta proiektuak eskualde osora zabaltzea.

Hobetzekoak: sare ikuspegian lan egiten jarraitzeko urratsak ematea eta eragileen arteko harremanean konexioak eta bestelako elkarlanerako aukerak sortzea. Eskualde ikuspegia garatzea, bereziki, eragindakoen artean eta herrien arteko orekak bermatzea.

- ✓ Kanpora begira, eredu desberdinak: proiektu batzuek bestelako sareetan parte hartzen dute eta rol aktiboa jokatzen dute horietan, garrantzia handia ematen diote harreman-sare zabala izateari; beste proiektu batzuek ez dute berariaz landu alor hori.





Ebaluazioen ondorioak

GOBERNANTZA DEMOKRATIKOA




GARAPEN-MAILA: ALTUA

- ✓ Oro har, narratiba komuna gehiago lantzeko beharra dago. Helburuak eta balioak konpartitzen diren arren, eragindakoen artean sakondu behar da.

Hobetzekoak: norabidea ez galtzea eta narratibaren lanketa jarraitua egitea.

- ✓ Eragindakoen inplikazio-maila, askotan mugatua da eta, maiz, pertsona bakarraren esku geratzen da parte-hartzea.

Hobetzekoak: erakunde bakoitzean transmisio-mekanismoak aktibatzea, proiektuekiko atxikimendua areagotzeko.






Ebaluazioen ondorioak

GOBERNANTZA DEMOKRATIKOA ■ GARAPEN-MAILA: ALTUA

- ✓ Erabaki ahalmenari dagokionez, maila desberdinak daude proiektuetan. Talde sustatzaileek hartzen dituzte batik bat erabaki nagusiak. Gainerako kideek ere badute nolabaiteko erabaki ahalmena: iritzia, ekarpenak, ideiak proposatzeko aukera, baina mugatuagoa da, eta bakoitza bere esparruan zentratzen da gehiago.

Hobetzekoak: eragindakoek proiektuko erabakietan gehiago parte hartzeko bideak lantzea: talde sustatzaileetan eragindakoak txertatzea, eragindakoek parte hartzen dituzten bestelako guneak potentziatzea...

- ✓ Kideen artean giro ona dago eta konfiantzazko harremanak eraiki dira. Informazioa konpartitu egiten da.
- ✓ Egitasmoek gizartean onura soziala eragitea dute helburu





Ebaluazioen ondorioak


GOBERNANTZA DEMOKRATIKOA



GARAPEN-MAILA: ALTUA

- ✓ Gatazka-egoeren kudeaketari dagokionez, batzuk badituzte egoera horiek kudeatzeko irizpideak eta joko-arauak, beste batzuk modu naturalean integratu dituzte egitasmoan. Baina, oro har, ez dugu atzeman jarraibide edo protokoloak zehazteko joerarik.

Hobetzekoak: gatazka-egoerei aurre egiteko edo horiek kudeatzeko jarraibideak zehaztea





Ebaluazioen ondorioak

EUSKARAREN SUSTAPENA



GARAPEN-MAILA: TXIKIA

- ✓ Bi hizkuntzen artean desoreka handiak daude, eta ez da beti euskararen presentzia behar bezala bermatzen.
- ✓ Egitasmoek ez dute euskararen ahalmentzean eragiteko estrategiarik garatu, eta ez da hizkuntza-jarreretan eragiteko berezko estrategiarik planteatu.

Hobetzekoak: Egitasmoetan zeharka euskararekiko sentsibilizazioan eta aldeko jarreretan eragiteko strategiak planifikatzea; adibidez: arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeak duen garrantzian eragitea, euskarazko baliabideen berri ematea eragindakoei...

- ✓ Oro har, egitasmoetan ez daude idatziz jasota hizkuntza-irizpideak, eta elebitasuna/aniztasuna kudeatu beharra izanez gero, ez dago zehaztuta nola erantzungo litzaiokeen egoera horri eta euskara lehenesteko zein irizpide erabiliko litzatekeen.

Hobetzekoak: euskarari lehentasuna emateko idatzizko eta ahozko hizkuntza-irizpideak zehaztea (komunikazioan, kanpo-harremanetan, batzarretan...)





Ebaluazioen ondorioak

EUSKARAREN SUSTAPENA



GARAPEN-MAILA: TXIKIA

- ✓ Gizartean ez da transmititzen euskaraz lan egin izana, ez horren garrantzia ere.

Hobetzekoak: Gizartean euskararen prestigioa areagotzeko mezuak lantzea eta komunikazio-planean aurreikustea.





Ebaluazioen ondorioak

EMAKUME ETA GIZONEN
BERDINTASUNA



GARAPEN-MAILA: TXIKIA

- ✓ Orokorrean, ez da berdintasunerako irizpiderik txertatzen proiektuetan, ez da gogoetarik egin gaiaren inguruan, nahiz eta zenbait proiektutan irizpide batzuk sartzen diren. Gaia lantzeko beharra antzematen da.

Hobetzekoak: Genero-rolak eta berdintasunarekiko sentsibilizazioa lantzeko baliabideak kontuan hartzea. Prozesuen diseinutik genero-ikuspegia txertatu beharko litzateke, genero-roletan aldaketak bultzatuz, eta berdintasunaren aldeko jarreretan eragiteko. Garrantzitsuak izan daitezkeen gako batzuk:

- Lan-eremu eta sektoreetan emakumeen lana bisibilizatu eta beraien parte-hartzea bermatzeko neurriak (eta feminizatutako eremuetan gizonena).
- Komunikazio-ekintzetan erabilitako hizkuntza ez sexista
- Sexuaren arabera informazioa jaso eta aztertzea
- Etabar...



Ebaluazioen ondorioak

TOKIKO GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

■ GARAPEN-MAILA: ERTAINA

- ✓ Egitasmo gehienek berezko helburutzat dute tokiko garapena sustatzea eta tokiko zerbitzuak eta hornitzaileak lehenetsi dira, baina ez dago idatzizko irizpiderik,

Hobetzekoak: tokiko hornitzaileak eta merkatu lokala sustatzeko neurriak beste sektoreetara zabaltzea. Hornitzaileak aukeratzekoan, irizpide sozial eta etikoak ere kontuan hartzea. Gainerako sektoreetako eragileei eta gizarteari horren onurak eta abantailak ikusaraztea, eskualde ikuspegia indartuz. Gai horren inguruko diskurtsoa indartzea.

- ✓ Sustatzaileek eskualdeko ikuspegia proiektu guztietan txertatzen badute ere, ez da beti lortzen, batez ere, eragindakoek herriko ikuspegia gainditzeko zailtasunak izaten dituztelako,

Hobetzekoak: Sortzen diren harremanak eta sinergiak beste proiektu sozial batzuk bultzatzeko baliatzea.





Ebaluazioen ondorioak

TOKIKO GARAPENA ETA
JASANGARRITASUNA

■ GARAPEN-MAILA: ERTAINA

- ✓ Hiru proiektutan ingurumen ikuspegia oso txertatua dago, eta proiektuaren erdigunean dago. Besteetan, ordea, ingurumen-inpaktua gutxitzeko neurririk ez da hartu, edo hartu direnean, eragin txikikoak izan dira eta ingurumenarekiko zaintza modu kontzientean ez da landu.

Hobetzekoak: jasangarritasunaren irizpideak kontuan hartzea eta ingurumen-inpaktua gutxitzeko (hondakinak gutxitu, energia-kontsumoak murriztu, energia berriztagarriak erabili, inpaktuak neurtu, erosketa berdeko irizpideak txertatu...) neurriak hartzea.





Ebaluazioen ondorioak

BIDERAGARRITASUNA



GARAPEN-MAILA: ERTAINA

- ✓ Ibilbide luzeagoa eta kontsolidatuagoa duten proiektuek autonomia handiagoa dute, lantalde egonkorra dute, egiturak finkatuta daude, ardurak banatuta, finantzazio-iturriak egonkorragoak... eta ondorioz, epe ertain-luzerako jarraikortasuna bermatuta dute.
- ✓ Beste batzuk, berriz, hobetzeko alderdi ugari dituzte, eta oinarria falta zaie, kontsolidazio-fasean baitaude. Orain arte egitasmoen oinarriak landu dira, eta hori aurrera begira garrantzitsua da, baina erronka nagusia dute egitura finkatzea, lantaldea egonkortzea, komunitatea trinkotzea eta autonomia garatzea.

Hobetzekoak: egitura egonkortzea eta finkatzea, epe ertain-luzerako egitura iraunkorra eta autonomia izatea, eta bertan proiektuaren transmisioa bermatzeko mekanismoak txertatzea. Proiektuaren jarraikortasuna bermatzeko erreleboa lantzea.





Ebaluazioen ondorioak

BIDERAGARRITASUNA



GARAPEN-MAILA: ERTAINA

- ✓ Egitura edo lanerako gune desberdinak ondo koordinatuta daude eta eraginkorrak dira.

Hobetzekoak: Laneko egiturak indartu eta eragindakoak horietan gehiago inplikatzeko, eta epe-ertaineko planifikazioa garatzea.

- ✓ Ebaluazioak garrantzitsuak dira, egindako bidea baloratu eta aurrera begirako ikasgaiak ateratzeko. Egitasmo batzuek egin dute prozesuaren eta emaitzaren ebaluazioa, baina beste batzuek modu partzialean edo informalean egin dute.

Hobetzekoak: ebaluazio-prozedurak zehaztea eta sistematizatzea. Egitasmoaren ebaluazio orokorra eta integrala egitea, bertan parte hartzen duten kide guztien artean, modu kolektiboan. Ebaluazioetan ateratzen diren hobetzekoak proiektuan integratzea.



Ebaluazioen ondorioak

BIDERAGARRITASUNA



GARAPEN-MAILA: ERTAINA

- ✓ Oro har, baliabideak modu optimoan erabili dira, nahiz eta aurreikuspenak betetzeko arazo ugari egon den, nagusiki, finantzazio faltak eraginda.
- ✓ Bideragarritasun ekonomikoari dagokionez, proiektu batzuk autofinantzazio-maila altua dute, eta beste batzuk txikia, kanpo-iturriekiko menpekotasun handia. Menpekotasun horrek proiektuaren bideragarritasuna zalantzan jar dezake.

Hobetzekoak: autofinantzazio-maila hobetzeko bideak lantzea.



Ebaluazioen ondorioak

EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA ETA ZABALKUNDEA

■ GARAPEN-MAILA: ERTAINA

- ✓ Proiektuan parte hartu duten kideek, sustatzaile zein eragindakoek, ezagutza berria jaso dute eta ikuspegi berriak bereganatu dituzte.
- ✓ Proiektuen berri ematen den arren, zailtasunak daude proiektuak sozializatzeko. Ondorioz, egitasmoez gizaratean inpaktu gutxi dute, eta pertzepzio- eta portaera-aldaketarik ez da ematen.
- ✓ Proiektuan parte hartu duten pertsonen jarrerak, gaitasunak eta portaerak ez dira proiektu guztietan modu berean aldatu.

Hobetzekoak: kanpora begirako komunikazioari garrantzia ematea, komunikazio-estrategiak berrikustea eta zer egin(go) den azaltzetik harago, diskurtsoa landu eta balioetan eragin, inpaktu soziala areagotzeko tresna moduan. Eragindako pertsonak eta taldeak komunikazio-lan horietan inplikatu.





Ebaluazioen ondorioak

EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA ETA
ZABALKUNDEA



GARAPEN-MAILA: ERTAINA

- ✓ Proiektu hauen inguruan bestelako ekintza, egitasmo eta proiektu sortu dira. Askotan, txikiak izan arren, bide horretan jarraitzea komeni da, proiektu berri horiek balioan jarriz, eta eskualde-ikuspegia indartuz.

